



Patata: Europako eraztun-itxurako usteldurari eta usteldura arreari buruzko txostena - EB 2015

Eraztun-itxurako usteldura *Clavibacter michiganensis* spp. *sepedonicus* bakteriak eragiten du, eta haren **egoera hobetu egin da**: agerraldi gutxiago jakinarazi dituzte.


Lehen aldiz, ez da gaixotasunaren agerraldirik jakinarazi Alemanian, eta badirudi Polonian egoera egonkor dagoela. Herbehereetan, hiru kasu bakarrik jakinarazi ziren kontsumo-patatetan. Beste alde batetik, nabarmen jaitsi da bakterio bidezko nekrosiaren kopurua Errumanian, nahiz eta jasotako laginen kopurua areagotu egin den.

Nolanahi ere, **usteldura arrearen eragina handitu egin da**.

Estatu kide batzuetan, bakterio patogenoa (*Ralstonia solanacearum*) aurkitzen dute oraindik ere, hazietan zein kontsumo-patatetan. Hungarian, besteak beste, hainbat kasu agertu dira. Aztertu zen *R. solanacearum* bakteria azaleko uretan edo patata ez den beste kutsadura-biderei batean ba ote zegoen, eta, horri dagokionez, ez dago aldaketa handirik.

Datuok Europako Batzordeak eginiko txosten honetatik hartu dira:

Potato ring rot and brown rot surveys in the EU Annual Report 2013/2014 (http://ec.europa.eu/food/fvo/news_detail.cfm?id=27).



ELIKA, Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)

Necessary Always Enabled